

Nafarroako zenbait abeltzain eta herri abeltzainetako alkateek Nafarroako Foru Erkidegoko abere ustiategi eta instalazioetako baldintza higieniko sanitario, animalien ongizate eta antolamendu zooteknikoa arautzen dituen Foru Dekretuaren gainean eginiko balorazio amankomuna.

Duela urte bat baino gehiago lantzen ari den Foru Dekretuari buruzko gure iritzia plazaratu nahi dugu, gure herrietako ekonomian, ingurunean, elikaduran, gizartean, kulturean eta paisaian dituen ondorioak direla eta, hasiera hasieratik tentu handiz jarraitu baitugu.

Nafarroan abeltzaintza jarduera ekonomiko garrantzitsua izan da, eta oraindik ere bada, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki, jendea landa eremuetan finkatzeko, lurraldearen kudeaketarako (mendiak, paisaia, ingurumena...) eta biodibertsitatearen kontserbaziorako funtsezko elementua baita.

Azken urteetan, abere ustiategi batzuk aldaketa handiak izan dituzte, eta horrek errealitate berri bat ekarri du bai ekoizpenean, bai baldintza sanitarioetan, bai ekonomian zein ingurumenean. Errealitatea hau abeltzaintza tradizional estentsibo edo/eta ekologikoaren errealitateetik desberdina da.

Nafarroako abeltzaintza estentsiboko ustiategi gehienetan, abereek urtean zehar denbora gehiena libre ematen dute, basa animaliekin eta beste ustiategietako animaliekin kontaktuan. Abeltzaintza intentsiboan aldiz, ezin dira mugitu, ez dute askatasunik, inguruntik eta gainerako animali eta pertsonengandik ahalik eta gehien isolatzea bilatzen da, espazio murrizagoetan daude kontzentratuta...

Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu baldintza higieniko sanitario, animalien ongizate eta antolamendu zooteknikoa arautzen dituen dekretu hau Nafarroan dauden abeltzaintza ekoizpen eredu desberdinei egokituta egitea, izan ere, eredu bakoitzak dituen animalien ongizate eta higie arazoak desberdinak dira, baita landa eremuan dituen ingurumen inpaktua eta inpaktua soziala ere.

Foru Dekretuaren proiektu hau abere ekoizpen intentsibo eta industrial batean oinarrituz egin da soilik, honen garrantzi ekonomikoa bakarrik baloraturaz. Horren ondorioz, abeltzaintza tradizional estentsibo edo/eta ekologikoak aldaketa garrantzitsua izango du, bere garapena eta existentzia bera zailduko baita. Horrela, abeltzaintza eredu honek ordezkatzeko dituen baloreak guztiz baztertuak gelditzen dira, adibidez, produktuen kalitatea, animalien ongizatea, ekosistemen oreka, hazien banatzea, suteen aurreko prebentzioa edo lurraldeak maila ekonomiko, sozial eta ingurumenean mantentzea eta herri bezala gure elikadura mota aukeratzeko eskubidea.

Gainera, ez dugu ez bidezkoa ez eraginkorra ikusten abereak ukuiluan isolatzean oinarritzen diren bioseguritate neurriak soilik abeltzainen ardura izatea. Dekretu honetan proposatzen diren neurrien kostua ere ez lukete abeltzainek bakarrik beren gain hartu behar. Administrazioak animalien osasuna hobetzeko beste neurri batzuk hartu beharko lituzke, eta hartu ditzake, animalia basatiei zein mota guztietako animaliei bideratuak egongo direnak (etxeke animaliak, maskotak,... barne).

FORU DEKRETUKO NEURRIEN ONDORIOAK

Jarraian, dekretuko neurri nabarmenenek izango dituzten ondorioei buruzko balorazio bat egiten da:

1. Ustiategien mugak. Ikuspegi sanitario, ingurumen, sozial eta ekonomikotik modu positiboan baloratzen dugu ustiategien gehieneko tamaina erregulatzea, izan ere, hazkunde honek ez du neurririk, eta zuzenean eragiten du gainerako ustiategietan, baita modu ez hain zuzenean gure herrietan ere. Uste dugu Foru Dekretu honetan ezartzen diren mugak gainditzen dituzten ustiategiei epe bat eman behar zaiela, gainerakoei bezala, erregulazio berrira egokitu daitezen eta egun daukaten buru kopurua gutxitu dezaten.

Adibidez: 4.900 buruko esne-behi ustiategia. Dekretuak finkatutako gehienekoa 1.200 esne-behi da.

2. Abeltzaintza estentsibo eta intentsiboaren definizioa. Foru dekretu honetako abeltzaintza estentsibo eta intentsiboaren definizioetan abeltzaintza tradizional eta/edo ekologikoa intentsiboa bezala definitzen da. Horren ondorioz, gure errealitatearekin bat ez datozen neurriak eskatzen zaizkigu, animalien ongizatean eta gure ustiategietan hobekuntzarik ekartzen ez dituzten inbertsio ekonomikoak eskatuz, eta horrek, gure abeltzaintza tradizionalaren ereduarekin bukatuko du.

Adibidez: gehienez ere, eta klimaren arabera, ganadu nabea urtean 4 hilabetez erabiliko duen 250 ardi latxako ustiategi ekologikoa.

3. Ustiategi berrien, handitzeen, ekoizpenaren orientazio aldaketan edo espezie aldaketan arteko distantziak. Foru Dekretuan ezarri diren distantziak aztertuz, ikusten da ez direla gure lurraldeko toki askotan egiten den abeltzaintza tradizional eta estentsiboaren ezaugarriak kontutan hartu. Distantzia hauek planteatu diren moduan, zenbait ustiategiren etorkizuna kolokan dago, eta ustiategi berriak sortzea asko zailtzen da, bereziki Nafarroa iparraldean eta erdi aldean, Foru Dekretu honetan esandakoa baino distantzia txikiagoan daudenez, ez zaielako handitzea, ekoizpenez aldatzea edo espeziez aldatzea baimentzen.

Adibideak:

- Bere osabaren ustiategiari jarraipena emanez sektorean lanean hasi nahi duen norbaitek, ezingo du egin ez baditu distantzia berriak betetzen. Lehenengo graduko ahaidetasuneko transmisio zuzenen kasuan bakarrik egin ahal izango da, edo ustiategia herentzian jasotzen den kasuetan. Gainerako transmisioetan, ustiategiaren bideragarritasun ekonomikoaz haratago, edo ustiategia autokontsumorako izateaz haratago, dekretu honetan eta beste batzuetan ezarritako distantziak aplikatuko dira. Hortaz, abere ustiategi askori egun gutxi geratzen zaizkie.

- Azken urteetan zenbait herritan egin diren abeltzaintza poligonoetan norbaitek bere abere nabea dibertsifikatzea, osatzea edo espeziez aldatzea erabakitzen badu, ezingo du egin, ezingo baititu dekretu honen baldintzak bete.

4. Txerri eta hegaztietan gaitasun desberdina duten ustiategien arteko distantzia. Ustiategi estentsibo edo ekologikoen instalazioa zailtzen da. Estatu mailan distantzia 1500m-koa da, eta dekretu honekin aldiz 3.000m-tara pasatzen gara. Instalazio berriak eraikitzeko distantziak bikoizten dira eta zaila da baldintza guztiak betetzen dituen kokapen bat aurkitzea.

5. Hausnarkarien arteko distantziak. Ze zentzu du norbait hausnarkariekin lanean hasi ezin izatea, bere borda edo nabetik 50 metro baino gutxiagora beste borda edo nabe bat dagoelako,

nahiz eta gero bi bordetako animaliak kanpoan elkarrekin egongo diren? Errealitate hau abeltzaintza poligonoetan eta Nafarroako baserri eta borda askotan ematen da.

6. Ustiategiek animalien ongizaterako bete beharko dituzten baldintzak:

-Egun bateko kontsumorako ura edukitzea kantitate eta kalitate higieniko egokian “potabilizazio-deposito sistema”.

-Mahuka propioa.

-Pentsuarentzat silo edo aireko almazena.

Adibideak:

-Abereak komunalean dauden kasuetan, abereentzat mahuka eta aska kolektiboak daudenean, zergatik erosi beharko du bakoitzak berea?

- Siloei dagokionez, baloratu da baserri guztietan silo metaliko bat jarritz gero horrek izango lukeen eragin bisuala? Iruditzen zaizue horrekin animalien osasuna edo ongizatea hobetuko dela?

7. Abere ustiategi desberdinen arteko nahasketa edo jardun amankomuna. Ze zentzu du “Ez da bi ustiategi desberdinetako abereen nahasketa edo jardun amankomuna baimenduko abere instalazio berdinetan, Departamentuak baimenduriko eta arrazoi puntualengatik justifikatutako kasuak salbu” esateak?

Adibidea: Abeltzaintza tradizionalen animaliak komunalean egoten dira, eta jabe desberdinen animaliek baita espezie desberdinetako animaliek ere, bordak, askak, mahukak... partekatzen dituzte.

8. Autokontsumorako animaliak. Landa eremuetan autokontsumorako oiloak, oilaskoak edo txerriak izatea zailduko da, baita ustiategien errenta dibertsifikatzeko salmenta zuzenaren bidez saltzeko oilo edo oilasko batzuk edukitzea ere.

9. Jarduera etetea, lizentzia iraungitzea eta abere ustiategiaren erregistroa indargabetzea. Dekretuak dio 2 urtez lizentzia erabiltzen ez bada, hau baliogabetu egingo dela, lizentzia ez erabiltzeak izan dezakeen limitazio efektua gutxitzeko. Honen ondorioz, tradizionalki abeltzaintza jarduera izan duten baserri edo nabeek arrazoi desberdinengatik denboraldi batez beraien aktibitatea edo espezieren baten erabilera uzten badute, abeltzaintzarako erabilera galduko dute. Kasu hauetan, aktibitatea berriz hasi nahi izanez gero, berriz ere prozesu guztia hasieratik egin beharko dute eta horren ondorioz, posiblea da dekretu berriaren baldintzak ez betetzea edo instalakuntzetan inbertsio berriak eskatzea.

Bestalde, orain arte baserri, borda, nabe eta herrietako abeltzaintza jardueretarako baimena udaletxeek ematen zuten. Dekretu honekin aldiz, eskumen hau Departamentuarena izango da, eta honek ez ditu abeltzaintza eredu desberdinak bereizten, ezta jarduera txikiak eta dibertsifikatuak defendatzen ere

10. Txerrientzako itxiturak. Nafarroan txerriak askatasunean edo modu ekologikoan haztea oso mugatuta dago, 11/2000 legeak txerriak Nafarroako komunaletan bazkatzea debekatzen baitu. Orain, beste zailtasun bat gehitzen da txerriak modu estentsiboan hazteko.

Dekretu berriak txerri ustiategi estentsibo eta/edo ekologikoentzat eskatzen duen itxiturak ustiategiaren perimetro guztian zehar bi hesiko itxitura izan beharko du, horietako bat 1,80m-ko altuerakoa, animalia basatien eta txakurrak edo katuak bezalako etxeko animalien sarrera eragozteko. Nabarmentzekoa da itxitura bikoitza eta komunaletan bazkatzearen debekua Nafarroan bakarrik gertatzen dela, bai Espainiar estatuan (dehesako txerria, jabugoa...) bai European baimenduta dago. Kontsumitzaile bezala, txerri industrialak jatea beste aukerarik ez digute ematen, horrek suposatzen duenarekin. Ekoizle bezala aldiz, ezin dugu gure ekoizpena dibertsifikatu gure lurraldera ongi egokitzen den eta mendietan eginkizun garrantzitsua duen animalia bat erabiliz, horrek diru sarrerak eta jendea landa eremuan gelditzea ekarriko lukeen arren (artzai gaztagileak bezala).

11. Ustiategi sailkapena bolumenaren arabera. Ustiategi tamaina sailkatzeko erabiltzen diren neurriak ez dira egun Nafarroan dauden ustiategi batzuetara egokitzen. Egungo errealitatea kontutan hartuz horrela sailkatu beharko lirateke: etxekoak, txikiak, ertainak, handiak, super-handiak eta makroak.

Adibidez, esne ardietan honela sailkatu beharko lirateke:

- Etxekoa. 30 ardiraino
- Txikia. 30-100 ardi
- Ertaina . 100-400 ardi
- Handia. 400-1000 ardi
- Super handia. 1.000-3.000 ardi
- Makroa. 3.000 ardi baino gehiago

Dekretuaren arabera aldiz, esne ardi sailkapena horrela gelditzen da:

- Txikia. 1.000 ardiraino
- Ertaina . 1.000-2.000 ardi
- Handia. 2.000 ardi baino gehiago (gehienez 6.000 ardi)

Hemen azaldukoak Foru Dekretu honetan planteatutako zenbait neurri eta horiek ekarriko dituzten ondorioak dira. Dekretu honek izugarri zailduko du gazteak sektorean hasia, bereziki familian abeltzain jardura ez dutenen kasuan, eta hain zuzen ere inkorporazio mota hau da azken aldi gehiagora doana. Kasu askotan ustiategi edo instalazioen transmisioa ezingo da egin. Dekretu honek abeltzain jardura modu progresiboan hasia zailtzen du, baita instalaziorik ez dutenen kasuan beren jardura komunalak erabiliz hasia ere. Nafarroako mendialdean eta erdialdean ez da erraza nabe bat jartzeko dekretuak eskatzen dituen baldintza guztiak beteko dituen lursail bat aurkitzea.

Nafarroako abeltzaintza estentsibo tradizionala guztiz aldatuko dela ikusten dugu eta horrek ondorio negatiboak izango ditu gure herrietan biztanleria finkatzeko orduan, komunalen kudeaketan, biodibertsitatean, tokiko arrazetan, kulturean...Landa eremuan biztanleria finkatzeko balio ez duen eta ingurumenean eragin zailtzagarriak dituen abeltzaintza industrialak bultzatzen da. Abeltzaintza gutxi batzuen jardura izatea indartzen da, herrietan bizi garen abeltzain txiki asko izan ordez.

ESKAERA

Orain arte aipatutakoan oinarrituta, dokumentu hau sinatzen dugunok, alde batetik ingurumena eta abeltzaintza kultura tradizionala zaindu eta elikagai osasuntsuak ekoizten ditugun pertsonak, eta bestetik Nafarroako herri abeltzainetako ordezkari politikoak, abeltzaintza eredu tradizional estentsiboak, tamaina txiki eta ertainekoak eta dibertsifikatuak, gure lurraldeko ekonomia eta ingurumenaren kudeaketan eta gure herriak bizirik mantentzeko duen garrantziagatik, eredu intentsibo industrialaren eta eredu tradizional estentsiboaren artean bereizketa argia egitea eskatzen diogu Administraioari, eta azken honetarako beste dekretu bat egitea, manejo honek dituen ezaugarri eta berezitasunetara eta eskualde bakoitzeko egoera eta antolamendura egokituko dena.

OHARRA: Idatzi honen edukian oinarrituta Nafarroako arartekoari keja bat helarazi zaio gaurko egunarekin, 27 abeltzainek eta 9 alkatek sinatuta.

Iruñean, 2018ko urriaren 23an.

